


PARKE, PASEALEKU ETA PLAZEN

ikuspegi historikoa

MERTXE AROZAMENA SAGASTIBELZA

"Hernani 1999" aldizkari honetan deskribatzen diren parke, pasealeku eta plazen izenak "Hernani 1995" aldizkarian argitaratutako izendegian agertzen direnak dira, izan ere katalogo horretan jasotako izenak dira, askotan esan izan dugun moduan, garai hartan ofizialki onartu zirenak.



UDALETXEAREN ATZEKO

aldeari deitzen zaio horrela. Leku honetatik abiatzen dira Atzieta, Elkano eta Lizeaga kaleak, eta baita ere Portu auzora eta Arantzazu plazara jaisteko eskailerak.

Urrietatik zetorren errege-bide zaharra bertatik igarotzen zen. Bide horrek, harresiz inguratutako herrigunera sartzeko ateetako batetik sartuta –udaletxe azpitik– hiribildua zeharkatu eta

PORTALE TXOKO

Frantzia aldera jotzen zuen.

Leku horri Portale Txoko izena ematea 1988ko martxoaren 29ko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak.



SAN JOAN Bataiatzailearen elizaren aldamenean dagoen pasealeku hau Elkano, Izpizua eta Nafarroa kaleek mugatzen dute, eta baita Kale Nagusiaren atzeko aldeko etxeek ere.

Lehenengo kale horiekin eskailera bidez komunikatzen da eta Gudarien enparantzarekin, berriz, etxe azpitatik igarotzen den pasabide baten bidez. Jende asko ibiltzen da hemen barrena. Izena aspaldi-aspaldikoa du eta pasealekuaren azalera ia osoa hartzen dutela landaturik dauden ezki ederretatik datorkio. Arbola horien itzalpean lasai hitz egitera biltzen dira hernaniarrak udako egun beroetan. Ezkiaga Pasealekuak badu bestelako erakargaririk ere. Batetik, udal pilotalekua; haur eta heldu

EZKIAGA PASEALEKUA

hantxe ibiltzen da egunero kantxa irekian pilota jokoan. Partidu garrantzitsu eta ikusle ugari bildu dituenak jokatu izan dira bertan. Eta, bestetik, musika kioskoa; kontzertu eta dantzaldietarako leku eta jaietako bilgune, batez ere denbora batean, bai bertakoentzat eta baita gure herritik kanpo etorritakoentzat ere.

Lehen pasealeku honi Paseo de los Tilos deitzen zitzaion eta gaur egun duen euskarazko izena 1988ko martxoaren 29an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak.



ARANTZAZU PLAZA

GIPUZKOAKO zaindariari eskainitako plazak Elcano, Larramendi, Lizarraga eta Lizeaga kaleen artean gertatzen den espazioa hartzen du, beheragoko mailan eta Onddi kaleak zeharkatzen du.

Arantzazuren jatorri historikoa 1469. urtean dago, izan ere urte horretan, Esteban Garay historialari arrasatearraren arabera, Rodrigo Balzategi izeneko artzainari Amabirjina Maria agertu zitzaion, bere semea besotan zuela eta ondoan zintzarri bat zegoela, Aloña mendiko aldapa malkartsuetan, elorri baten gainean. Hori ikusita Oñatiko artzainak zera esan omen zuen: "Arantzan zu?"

Mariaren irudikapena garai hartan Euskal Herriaren bakerako sinbolo bilakatu zen, izan ere garai hartan borroka ugari zegoen hemen, eta Arantzazu izenak inork pentsatuko ez zuen moduko izpiritualtasuna eta sakontasuna lortu zuen.

Herriarengan hain erroturik egoteari esker bere historian zehar izandako hiru sute gainditu ahal izan ditu, 1553an, 1622an eta 1834an.

1886ko ekainaren 6an irudiaren koroazio kanonikoa egin zen, eta 1918ko irailaren 9an

Gipuzkoako zaindari izendatu zuten Arantzazuko Amabirjina.

1950. urtean lehiaketa bat egin zen gaur egungo basilikaren diseinua erabakitzeko. Modernoa eta

soila da eta arkitektura aldetik oso interesgarria. Basilika honen eraikuntza, bere partehartzaileen izaera abangoardista tarteko, nahiko polemikoa izan zen. Lan makurra izanik ere, arkitektura eta paisajea, partikularra eta unibertsala eta tradizioa eta etorkizuna bateratzea lortu zen. Andre Maria agertu eta 500 urteetara sagaratu zen, 1969. urtean.

50 urteetako hamarkadaz geroztik Arantzazu erakarpene gune eta euskal erlijiotasun herrikoia berritzeko leku bilakatu da. Milaka erromes joaten da santutegira Mariarenganako debozioak, paraje haren bakardade eta edertasunak, penitentzia egitearen tradizioak, giro izpiritual misterioitsuak eta abar bultzaturik, eta denek abesten dute poetarekin batean:

Zuk zer dezu, Arantzazu

Amets kabi, otoiz leku?

Euskalerrria oso osorik

Kantari dijoakizu (S. Mitxelena)

Leku honen izena 1975ean erabaki zuen

Hernaniko udalbatzarrak, maiatzaren 6an egindako ohizko bileran.

HIRIGUNE HISTORIKOAREN muturrik garaianean dago. Trazatu irregularreko plaza berezi hau parroki elizak, udaletxeak eta beste eraikin batzuk etxebizitza erabilerakoak osatzen dute. Plaza honetatik Hernani zaharreko bi kalerik garrantzitsuenak abiatzen dira. Hemen herriko bizitza sozialaren ekitaldi ugari egiten da urte osoan zehar eta, beraz, herriko plaza publiko garrantzitsua da. Izen bat eta beste izan ditu denboran zehar, askotan unean uneko gertaera politikoen adierazgarri.

Garai bateko Kontzeju Plaza izenaren partez (Plaza Mayor gaztelaniaz), Plaza de la República jarri zitzaion, 1931ko apirilaren 22an hartutako erabakiaren bidez. Hala ere, horren ondotik Plaza de España izena jarri zitzaion, 1936ko urriaren 8an hala egitea erabaki baitzuen udalak. Gero, 1979 urte inguruan, udalak izena aldatzeko beste saio bat egin zuen, Plaza de España izenaren ordezkari Hildako Gudarien Enparantza izena jartzeko,



GUDARIEN ENPARANTZA

baina dirudienez ez zen aurrera joan. Gaur egungo izena, Gudarien Enparantza, euskal gudari guztien oroimenez jarria, 1988ko martxoaren 29ko ohizko bileran erabaki zuen Hernaniko udalbatzarrek.



IBARROLABURU PLAZA

eskaintzeko, bere izenean eta bere senarra zenarenean, dirua berak adierazitako helbururako erabiltzekotan, eta hauxe zen bere nahia: "exclusivamente como base para la construcción o mejora de un pabellón que sirva para duchas y algún baño de servicios económicos en beneficio de la clase trabajadora. Si este servicio estuviera ya establecido, dicha donación podría aplicarse como ayuda a la construcción de viviendas económicas para obreros".

PORTU AUZOAN dago; San Joan Bataiatzailearen etxeguneak mugatzen duen espazio berriki urbanizatuari ematen zaio izen hori.

Javier Ibarrolaburu Arrese Tolosan jaio zen (Gipuzkoa) 1889ko abenduaren 2an, eta hainbat herritan bizi izan zen, Hernanin besteak beste, 1890 eta 1892 urte artean.

Javier Ibarrolaburu hil ondoren, bere alargunak, M. Cruz Lorenza Lasherasek, 1954. urtean gutun bat bidali zuen udalera, 50.000 pezetako emaitza bat

1954ko abenduaren 1eko Udal Batzorde Iraunkorrek bere eskerrona agertu zion Ibarrolabururen alargunari eta, dutxen zerbitzu publikorik bazegoenez, jasotako dirua San Joan Bataiatzailearen etxegune babestua egiteko erabiltzea erabaki zuen. Arantzazuko Amaren Obra Asistentzialak zuen Portuko etxe horiek egiteko asmoa, eta etxegune horren artean sortzekoa zen plazari eman zitzaion bere senarra zenaren izena.



FLORIDA AUZOAN dago, auzo aldera jaisten den bide nagusiaren ezker aldean, Fundiciones del Norteren orube zaharrean eraikitako etxeguneek mugatzen duten espazioan.

Juan Mañé y Flaquer Tarragonako Torredembarra herrian jaio zen, 1823ko urriaren 15ean. 1843. urtean hasi zen kazetari lanetan eta "Diario de Barcelona" eta Madrilgo "La Epoca" egunkariaren zuzendari izan zen.

Frantzia eta Italian barrena ibili zen bidaietan eta, itzuli zenean, 1865ean, lehen aldiz etorri zen Euskal Herrira. 1872-1874ko gerra zibilean karlismoaren alde azaldu zen eta "Diario" egunkariaren orrietatik foruen aldeko etengabeko lana egin zuen. 1876ko uztailaren 21ean, foruak indargabetuak zeudelarik, Mañé Euskal Herrira etorri zen berriz ere. Probintziako eta herriko agintariek bere adiskidetasun leial eta eskuzabalari zegokion moduko harrera egin zioten, eta eskerrona adierazteko opari gisa Gernikako Arbolaren adar

bat besterik ez zuen eskatu eta onartu nahi izan, Torredembarra bere lorategian landatzeko. Bidaia honen fruitu izan zen bere funtsezko liburua: "El Oasis. Viaje al País de los Fueros". Lan hori da Euskal Herria eta Nafarroaren aldeko adierazpenik onena eta zentzuzkoena; geografia, historia, artea, folklorea, etnografia, literatura,

ohitura eta erakundeekin zerikusia duten hainbat alderdi aipatzen ditu eta

MAÑÉ FLAQUER PLAZA

hizkuntzaren, arrazaren eta euskal zuzenbidearen inguruko kontuak ere bai.

Liburu horretan orrialde batzuk Hernaniri eskaini zizkion, Euskal Herrian barrena ibili zenean hona ere etorri baitzen.

1901eko uztailaren 7an hil zen, 78 urte zituela. Plazari bere izena jartzea 1976ko irailaren 16an egindako bileran erabaki zuen aho batez Hernaniko udalbatzak, kazetari eta idazle katalan zintzo honi eskerrona agertzeko, Euskal Herriko Foru erakundearen alde egindako defentsarengatik.



OLAETA PLAZA

gelditzen dena.

Izenak garai bateko jarduera industrial garrantzitsua gogorarazten du, izan ere Urumea errioaren arroan ola ugari zegoen (Pagoaga, Ereñotzu, Fagollaga, Epele, Osiñaga...). Horrek eragin handia izan zuen gure herriko hazkunde ekonomikoan.

Ferrerías izena 1975. urteko maiatzaren 6an egindako osoko bilkuran erabaki zen.

1988ko martxoaren 29an hartutako

erabakiaren bidez herriko kale guztiak euskaraz bakarrik onartu ziren eta, ondorioz, Plaza de Ferrerías izenaren partez gaur duen izena onartu zen, Olaeta plaza.

PLAZAK HARTZEN duen eremua hauxe da: Karabel kalearen eta kale horren bi muturretatik abiatuz Renfeko geraldura joateko tunelaren azpitik hurbil elkartzen diren bi kaleen artean

PLAZA-BERRI

KASKO ZAHARREAN dago, Kale Nagusiaren eta Kardaberaz kalearen artean, funtzio askotarako espazio urbanoa osatuz, bertan jende asko ibiltzen dela. Plaza honen izena gutxienez 1897ko urtarrilaren 3koa da. Egun horretan Udalak, Foru Diputazioak eskatuta, bere izena bi hizkuntzetan agertzea erabaki zuen, honela: Feri plaza – Plaza del Mercado, bertan ostegunero ganadu feria egiten zelako. Zumarragan 1905eko otsailaren 11n foruen alde egindako bileraren ondorioz, udalak, irrikitan baitzegoen Hernanin foruekin zerikusi zuzena zeukan jairen bat ospatzeko, 1905eko otsailaren 18an erabaki zuen Feri plaza edo Plaza berriari (hala deitzen zitzaion) Foruen Plaza izena ematea. Plaza horren inaugurazio jaia otsailaren 26an izan zen; jaialdi herrikoiak egin ziren, eta plazaren erdian



haritz bat landatu, euskal askatasunaren ikur gisa. Gaur egun duen izena Hernaniko Udalak 1988ko martxoaren 29an egindako osoko bilkuran erabaki zen.